lo y el *humus* formado acumúlase, por decirlo así, indefinidamente.

La cualidad característica de los terrenos para pastos será, pues, su riqueza en materias orgánicas, en *humus*, que es lo que generalmente comprueba su análisis.

(De *L'Ami des Campagnes*)

# MAYATZEKO GOIS̄ALDEAK EMOTEN DABEN ATSEGIÑA

## AMALAUDUNA

Odei puska bat desegin zan da agorrillean
Ikusi neban izar bizi bat agertuten,
Eta odeyak gero guztiak uts biurtsean
Zerua jantzi loratsuagaz apainduten.
Ais̄eak joten eban soñuak orri artean
Ainbesteraño ninduan barriz gozatuten,
Arroa bera murmurka arin bere bidean
Joian korrontak zergaitik eutsan lagunduten.
Izar aisecho era korronta murmurlariak
Biontzarentzat gabaz baziran ain pozgarri
¿Zer izango da negu ostean uda barriak
Erakustean ainbeste bichi jayo barri,
Zer chorichoak chorrochioka deika guztiak
Dabilltzanean Mayatzean gois̄ egunari?

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1895-ko Mayatzean.